

Arabako Foru Aldundiak informazio hitzaldiak antolatu ditu familia harrera gertuagotik ezagutzeko

Saioak hilean behin egingo dira eta haurrak hartu nahi dituztenak dituzte jomuga

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 17a. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako erakunde autonomoak, jarraitu egingo du urtea bukatu arte adingabeak familietan hartzeari buruzko informazio solasaldiak eskaintzen, eta hilean behin izango dira, uztailean eta abuztuan salbu. Hurrengo hitzordua urtarrilaren 21ean izango da, astelehenarekin.

Saioak urtea bukatu aurretik egun hauetan izango dira: otsailaren 18an, martxoaren 11an, apirilaren 8an, maiatzaren 13an, ekainaren 17an, irailaren 16an, urriaren 14an, azaroaren 11n eta abenduaren 16an.

Solasaldi horiek datorren 17:30ean egingo dira, Familia Harreraren Programak Gasteizen dituen lokaletan (Olagibel kalea, 20, 1. solairua, 1. Bulegoa).

Hitzaldi horietan Araban harrera familian interesa duen pertsona orok har dezake parte. Hitzaldian harrera modu horren oinarritzko alderdiak jorratuko dira, informazioa emango da adingabeen ezaugarri eta bizipenen inguruan, protagonista bakoitzak harreraren zer zeregin duen aztertuko da, zein lege eta administrazio esparru dagokion, eta, guzti-guztia, parte hartzean oinarritutako metodologia dinamiko baten bidez.

Harrera babes neurri bat da, aukera ematen diena haur horiei beraienak ez diren familietan hazteko eta, kaltea konpontze aldera, harremana eta lotura izaten jarraitzeko beren gurasoekin, dena delako arrazoiengatik ezin direlako elkarrekin bizi eta kaltea konpontzea.

Era guztietako familiek har ditzakete haurrak: familiek, bikoteek eta pertsona bakarrak, ondorengorik izan ala ez. Interesdunek Harrera familiarren Laguntza Programarekin harremanetan jartzeko nahikoa izango dute 945 77 30 52 telefonora deitzea edo acogimiento@araba.eus posta elektronikora idaztea.